

**Astigarraga:** AHT ETA GARRAIO POLITIKA. Gaur, astelehena, 19.00etan, kultur etxean, Josu Larrinagak, Iñaki Barcenak eta Mikel Alvarezek hitz egingo dute.

**T**xotx! Magikoa da deja. Entzun orduko begiak piztu eta hankak arintzen zaizkio hartzaileari. Halakoxe izenburua jarri diote atzo Astigarraga eta Hernani arteko, mugan da goen Oialume dantzalekuan estreinatu zuten ikuskizunari. "Txootx!"

Sagarrondotik jaialdiaren baitan antolatu duten saioaren protagonista nagusiak sagardoa eta parranda izan ziren; ez alferrik, ikuskizunaren funtsa horiei gorazarre egitea da. Euskitzek berak aurkezpenean esan zuen modura, «txurrutaren apologia» egitea du helburu.

Parrandero eta golfo fama aspaldi samarrekia dute bertsolariek, eta horretan sagardoa lagun fin-fina izaten da, bertsolari izan edo ez. Horrega-

*Parrandero fama dute bertsolariek, eta horretan sagardoa lagun fina izaten dute*

tixe "Txootx!" ikuskizuna sagardotegi batean kokatzen da. Eta sagardoa ere ez zen faltatu atzo; Astigarragako Aiztondo abesbatzako ezarriak, Oretako Ereintza dantza taldekoen hankak eta Euskitze eta Peñagarikano bertsolarien ezarriak majo berotzeko adina.

Euskitze eta Peñagarikano elkar zirikatuz aritu ziren saio guztian barna, eta entzuleak gozatu egin zuen adar-jotzearekin. Hala kantatu zion Euskitzek hasiera samarrean Peñari: «Gure Peña honek ezauna du gaurko plaza/ gizarajoak hemen bildu

Oialume dantzalekuan izan zen bertso-dantza-kantu emanaldia

## Gorazarre sagardoz blaitutako jaiari

### BERTSOAREN JIRAN



«Maritxu» Peña eta «Bartolo» Euskitze.

Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS



Denetik pixka bat egin behar izan zuten bertsolariek.

Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

zun makina bat kalabaza». Eta Peñak segituan erantzun: «Handi xamarra bota didazu neri ala jaungoikoa/ zuk ez diozu besteiei esan zuri gertatutakoa».

Baina Oialumen batak eta besteak jasotako kalabazak eta bildutako arrakastak alboan utzita -horiek «morboa» eman-go lukete, egiatik gehixeago izango balute-, sagardoa izan zen nagusi atzo. Aiztondo abesbatzakoek kantatu zituzten

*Bertsozaleak gustura ikusi zuen Euskitze bertsotan, aspaldion ez baita erraza*

abesti guztietan ageri zen mama gozoa, eta gehienak kanta ezagunak ziren, atzoko propio letra moldatuta zuten kanta ezagunak. Garbi abestu zuten: «Ez da filosoforik ez geologorik/ sagardoari neurria hartuko dionik/ gizon haundiak ere ikusi ditut nik/ beren mozkorra ezin disimulaturik».

Ereintza dantza taldekoak ere harritzeko moduan aritu ziren. Hustu berri zituzten sagardo basoen gainean akrobaziak egiten eta txukun-txukun, oreka galdu gabe. Bertsolariek ere egin zituzten akrobaziak, eta

ederki moldatu ziren bata bestearekin. Eta bertsozaleak gustura ikusi zuen Euskitze bertsotan, aspaldi samarrean ez baita hain erraza bertso plazetan jardunean ikustea. Maritxuren eta Bartoloren paperean egindako saioak barre ugari eragin zuen. Euskitze, bere dotore plantarekin, Bartolo; eta Peña, zapi bat buruan jarrita, Maritxu neska polita. Biak sagardo berri bila zihozten iturriara.

«Burukoa daukazu dotore jarria/ ta gainera 'sexapil' ikaragarria/ neska polita zera, baina bihurria/ probatu nahi al dezu nere iturria», galdetu zion Bartolok. Eta Maritxuk erantzun: «Erantzun beharko diot orain Bartolori/ honek beti izan du nahiko kategori/ iturria daukazu handi eta lodi/ Maritxurentzat al da grifo handi hori». Eta Bartolok jarraitu: «Maitasun kontuetan ez gera jakintsu/ eta amodioak jartzen gaitu itsu/ goseak amorratzen zaude zu Maritxu/ ta egia esateko ni ere berdintsu».

Hortik aurrera gutxi dago kontatzeko. Ez kontatzeko modukoa ez den ezer gertatu zelako, emanaldiak bere horretan aurrera jarraitu zuelako baizik. Oialume sagardotegian bazkaria eginda bukatu zen mama gozoari egindako gorazarrea. Eta han ere, Txotx! •